



2019/07/18KO UDALBATZAREN EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2019/07/18
Hasiera ordua: 19:10
Amaiera ordua: 19:25

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Santiago Balantzategi Ugarte

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

Maria Cristina Etxenusia Irure

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Oihana Ameskoa Perez

Iban Herrarte Arana

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

| | |
|--|---|
| 1. ARAMAIOKO ZERBITZU ANITZETAKO EKIPAMENDUA EGOKITZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.. | 3 |
| 2. ARAMAIOKO KULTUR ETXEA KUDEATZEKO KONTRATATUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.. | 3 |
| 3. UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA ONARTZEA. | 3 |
| 4. 2019KO AURREKONTUKO 2/19 KREDITU ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.. | 4 |
| 5. BATZORDEEN OSAERAREN BERRI EMATEA.. | 5 |
| 6. INGURUMEN TEKNIKARIAREN ZERBITZUA GORBEIALDEKO KUADRILLAK KONTRATATU ETA PRESTAZIOA ERA MANKOMUNATUAN EGITEA ONARTZEA.. | 6 |
| 7. AZKEN ORDUKO GAIAK | 7 |
| 8. ADIERAZPENA ARAMAIOKO ESKOLAKO LANPOSTUEN ZERRENDA DELA ETA | 7 |



1. ARAMAIOKO ERABILERA ANITZEKO EKIPAMENDUA EGOKITZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Alkateak jakinarazten du, batetik, apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiaren obra eta zerbitzuen foru plana arautzen duela; eta, bestetik, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 2ko 26/2017 Foru Dekretuaren bidez dagokion deialdia egin zela eta Aramaioko Udalak diru-laguntza eskaera egin zuela, hain zuzen ere, "Gazteentzako udal zentro erabilera askotakoa" izendatutako proiektua aurkeztu zuen deialdian. Horren xedea da, Pedro Ignazio Barrutia kaleko 7 zenbakiko udal lokalean erabilera anitzeko gazte zentroa egokitzea.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren 260/2018 Erabakiak, maiatzaren 29koak, Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2018-2019 programarako laguntzak onesten dituenak, Aramaioko Udalarari 103.903,50.-€ko diru-laguntza esleitu zion, aurkeztutako 234.850,26.-€ko aurrekontuaren aurrean.

Aurreko guztia ikusirik, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako erabaki proposamena:

Bakarra.- Hasiera ematea, ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EXEKUZIO LANAK egiteko kontratua esleitzeko espedienteari eta, hartara, hasiera ematea kontratua esleitzeko prozedurari.

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

2. ARAMAIOKO KULTUR ETXEA KUDEATZEKO KONTRATATUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Alkateak jakinarazten du, gaur egun Ostadar, S.C.k kudeatzen duela Udal Kultur Etxea. Kontratuaren esleipena amaituta dago jadanik eta, baita ere, egin litezkeen kontratu luzapenak. Egoera hau lehenbailehen zuzendu beharra dago eta, hartara, kontratuaren esleipenerako lehiaketari hasiera ematea aurreikusia dago.

Aurrekoaren harira, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako erabaki proposamena:

Bakarra.- Hasiera ematea, UDAL KULTUR ETXEA KUDEATZEKO zerbitzu kontratua esleitzeko espedienteari eta, hartara, hasiera ematea kontratua esleitzeko prozedurari.

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

3. UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA ONARTZEA.

Ordainsariak direla eta funtzio publikoan indarrean dagoen araubide juridikoa Funtzio Publikoa Eraberritzeko abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legeak, eta horiek garatzen dituzten zenbait arauk eta batez ere, Euskal Herriko Administrazioetako Funtzionarioen Ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/90 Dekretuak arautzen dute.

Xedapen horiekin bat etorritik, oinarritzko ordainsariak (soldata, hirurtekoa eta aparteko ordainsariak) Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean zehazten dira, destino osagarriaren zenbatekoak, berriz, Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontuen Legean eta berariazko eta ordainsari osagarrien zenbatekoak euskal herriko administrazioek zehazten dituzte 207/90 Dekretuak xedatutako irizpideetan oinarrituta.

2018/12/27an argitaratu zen EAOn 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretua: horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2019. urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

2018ko uztailan, EUDELeK zirkular bat bidali zuen, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legean jasota dauden 2018ko ekitaldirako ordainsari igoera aplikagarrien inguruko gomendio egokiek, eta, orain, 24/2018 Errege Dekretu-legea argitaratu ostean, gomendio berdina egitea komeni da 2019ko ordainsari igoerei dagokienean.



Hain zuzen, 24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3.2 artikuluan hau dago xedatuta:

“ 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneousotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langileriaren antzinasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetztea da.

- Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango baliuz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: %2,30.

BPGd 2,2aren berdina: %2,35.

BPGd 2,3aren berdina: %2,40.

BPGd 2,4aren berdina: %2,45.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulua aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldeztu aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.”

Horren aurrean, Aramaioko Udalak jada eguneratu zituen ordainsariak eta egin zuen %2,25eko igoera 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin.

Halaber, kontuan hartu beharra dago, 2019ko ekainaren 21eko Ministroen Kontseiluak onarpena eman ziola, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako igoera gehigarria egiteari, hots, %0,25ekoa, uztailaren 1etik aplikagarria izango dena.

Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu batzordeak akordio hau hartzeko proposatzen dio Udal Plenoari:

Bakarra.- Esandako 3.2 artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokienez, eta 2019ko ekainaren 21eko Ministroen Kontseiluak erabaki bezala, %0,25eko soldata-igoera gehigarria (kontzeptu guztietan) jartzea, 2019/07/01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko.

Ondoren, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaraturako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. 2019KO AURREKONTUKO 2/19 KREDITU ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.

Alkateak hitza hartu eta adierazten du, 2019ko aurrekontu orokorrean aurreikusitako ezinezko hainbat behar sortu direla eta ondorengo gastua eragingo diotela udalari:

| XEDEA | ZENBATEKOA (BEZ barne) |
|---|------------------------|
| Ekipamendu informatikoak | 877,25 |
| Hesi berria jartzea Pedro Ignacio Barrutia kalean | 14.760,00 |
| Ormigo aldaketa Bentamotz bideko maldan | 6.500,00 |
| Arrapala mugikor berria | 1.072,80 |
| Kirol eskaintza | 2.500,00 |
| Kultur etxeko materiala | 1.350,00 |
| Kultur etxeko mantenimendua | 2.000,00 |
| Uribarri aparkamentua asfaltatzea | 18.460,06 |
| Basutiko bidearen lehen zatia asfaltatzea | 10.106,53 |
| Hiri tresneria - Ekipamendua | 3.500,00 |
| Ur sarea Basauti | 4.500,00 |
| GUZTIRA | 65.626,64 |



Horiei aurre egiteko, beharrezkoa ikusten da kreditu aldaketa egitea, hain zuzen ere, gehikuntza motakoa. Horren ezaugarriak dira:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak

| Kapitulua | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|-----------|--------------------|--------------------|------------|--------------------|
| 2 | GASTU OROKORRAK | 968.009,91 | 4.500,00 | 972.509,91 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 564.204,35 | 61.126,64 | 625.330,99 |
| GUZTIRA | | | 65.626,64 | |

Gehituko diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak

| Kapitulua | Izena | Hasierako kreditua | Gutxipena | Amaierako kreditua |
|---------------|-------------------------------|--------------------|-----------|--------------------|
| 8 | GASTU OROKORRETARAKO GERAKINA | 1.020.939,40 | 65.626,64 | 955.312,76 |
| GUZTIRA BAJAK | | | 65.626,64 | |

Gutxitutako partidak ez dira zerbitzuaren kalterako izango. Halaber, aipatu beharra dago, kreditu murrizpenak ez diela entitate honen interes orokorrei eragingo, ez eta horiek oztopatuko ere.

Aurreko guztiarekin bat, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatzen dio Udalbatzari akordio hau har dezan:

“**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea kreditu aldaketa espedienteari.

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn eta 15 eguneko epea irekitzea, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzoten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.- Ohartzea, adierazitako jendaurreko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartutzat joko dela, inongo beste erabakiren beharrik gabe.”

Lehendakariak bozketa deitu du eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, aho batez ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. BATZORDEEN OSAERAREN BERRI EMATEA.

Alkateak adierazten du, 2019ko ekainaren 15ean Aramaioko udal-korporazio berria eratu zela eta, ondoren, ekainaren 20an batzorde informatiboak eratu zirela.

Bestalde, gogorarazten du, azaroaren 28ko Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 125.a) atalaren arabera, Alkateak, legez hari badagokio ere, Informazio-Batzordeen lehendakaritza Korporazioko edozein kidearen esku utz dezakela.

Guztiarekin bat, berri ematen du batzordeen osaeraren inguruan ebatzitakoaz:

Lehena.- Ondorengo Informazio Batzordeen lehendakaritza onako zinegotzi hauen esku uztea:

- KULTUR ETA KIROL BATZORDEA: Ana M Martiarena Arregi andrea.
- EUSKARA-HEZKUNTZA: Oihana Ameskua Perez andrea.
- GIZARTE ONGIZATE BATZORDEA: Maria Cristina Etxenausia Irure andrea.
- INGURUMENA-MENDIAK BATZORDEA: Santiago Balantzategi Beitia jauna.
- HIRIGINTZA-AUZOAK BATZORDEA: Gorka Astondoa Altuna jauna.



- ZERBITZUEN BATZORDEA: Iban Herrarte Arana jauna.

Bigarrena.- Eratzea Batzorde Informatiboak, ondoren adierazten den osaerarekin:

OGASUNA-ANTOLAKUNTZA. Batzordeburua: Lierni Altuna

- Iban Herrarte (ordezkoa: Ana Martiarena)
- Cristina Etxenautia (ordezkoa: Gorka Astondoa)
- Juanan Peña (ordezkoa: Pedro Elozegi)

ZERBITZUAK. Batzordeburua: Iban Herrarte

- Lierni Altuna (ordezkoa: Ana Martiarena)
- Gorka Astondoa (ordezkoa: Santi Balantzategi)
- Pedro Elozegi (ordezkoa: Juanan Peña)

EUSKARA-HEZKUNTZA. Batzordeburua: Oihana Ameskoa

- Lierni Altuna (ordezkoa: Cristina Etxenautia)
- Santi Balantzategi (ordezkoa: Iban Herrarte)
- Pedro Elozegi (ordezkoa: Juanan Peña)

KULTURA-KIROLA. Batzordeburua: Ana Martiarena

- Oihana Ameskoa (ordezkoa: Santi Balantzategi)
- Lierni Altuna (ordezkoa: Cristina Etxenautia)
- Juanan Peña (ordezkoa: Pedro Elozegi)

INGURUMENA-BASOAK. Batzordeburua: Santi Balantzategi

- Gorka Astondoa (ordezkoa: Oihana Ameskoa)
- Lierni Altuna (ordezkoa: Iban Herrarte)
- Pedro Elozegi (ordezkoa: Juanan Peña)

HIRIGINTZA-AUZOAK. Batzordeburua: Gorka Astondoa

- Iban Herrarte (ordezkoa: Santi Balantzategi)
- Lierni Altuna (ordezkoa: Cristina Etxenautia)
- Juanan Peña (ordezkoa: Pedro Elozegi)

GIZARTE ONGIZATEA. Batzordeburua: Cristina Etxenautia

- Oihana Ameskoa (ordezkoa: Ana Martiarena)
- Lierni Altuna (ordezkoa: Gorka Astondoa)
- Juanan Peña (ordezkoa: Pedro Elozegi)

Besterik gabe, bertaratutakoak jakinaren gainean gelditzen dira.

6. INGURUMEN TEKNIKARIAREN ZERBITZUA GORBEIALDEKO KUADRILLAK KONTRATATU ETA PRESTAZIOA ERA MANKOMUNATUAN EGITEA ONARTZEA.

Alkateak adierazten du, herritarrek eskatzen dutela ingurumenarekiko begirune geroz eta handiagoko bizimoduak ezartzea, eta ingurumen arloko araudiaren xedea da geroz eta babes maila handiagoak ezartzea eta jasangarritasunerako politika aktiboak abiaraztea. Bi xedeok gauzatzeko, beharrezkoa da herri administrazioek arlo horretan langile tekniko kualifikatuak edukitzea.

Horrekin lotuta, Kuadrillak, iazko urrian, gai horietarako teknikariaren zerbitzua kontratatu zuen, Kuadrillako Udaltalderako. Udaltadea osatzen dute, Aramaioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako Udalek. Kuadrillatik emandako azken berriekin bat, indarrean dagoen kontratua datorren uztailaren 31n bukatzen da, eta ezin da luzatu. Horregatik, beharrezkoa da lehiaketa berri bat deitzea, beti ere, udalek horretarako interesa erakusten badute.

Zerbitzuaren funtzioak, gaur egun dituenak bezala, honakoak izango dira: Tokiko Agenda 21aren prozesu eta ekintzen ezarpenean, martxan jartzean eta garapenean laguntza ematea; Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Arloko helburu estrategikoekin bat egiten duten ekintzak, edo Ingurumen Arloko helburu estrategikoekin lotura duten bestelako helburu estrategiko foralekin bat egiten dutenak; Ingurumen iraunkortasuna sustatzeko jardunak bultzatzea, bereziki Arabako Lurralde Historikoko Garapen



Iraunkorrerako planak, Arabako Foru Aldundiak iraunkortasun eta ingurumenaren arloan bultzatuko dituen proiektu edo plan berriak eta Kuadrillek edo toki erakundeek dagokion moduan onarturik dauzkaten iraunkortasuneko tokiko estrategiak.

Gogorarazi beharra dago, 2018tik aurrera, zerbitzua Arabako Foru Aldundiak finantzatzen duela, T.E.F.F.F.aren bidez. Diru-laguntzaren zenbatekoa, berriz, honakoa da: %80, Kuadrilla bakoitzeko urteko 42.000 euroko gehienezko kostuarekin.

Jarraian, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Onartzea, Gorbeialdeko Kuadrillaren eskuetan uztea ingurumen gaietako aholkularitza tekniko zerbitzua, erakunde horrek zerbitzua era mankomunatuan eman dezan.

Bigarrena.- Ematea, 200 ordu/urte ingurumen teknikariaren zerbitzua Aramaioko Udalean.

Hirugarrena.- Jakinaraztea honakoaren berri, Gorbeialdeko Kuadrillari.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

7. AZKEN ORDUKO GAIK.

Alkateak jakinarazten du azken orduko gai bat sortu dela eta premiako arrazoiengatik Udal Plenoak aztertzea nahi duela. Hain zuzen ere, eskolako lanpostuen zerrendaren inguruan sortu den arazoaren aurrean udalak adierazpen bat egitea egokia ikusten du, besteen artean, datorren ikastaroa ahalik eta hoberen antolatu ahal izateko garaiz gaudelako oraindik.

Idazkari-kontuhartzaileak adierazi du Udal Plenoak azken orduko gaiak aztertzeko aurrena gehiengo absolutuz onartu behar duela gaiaren premiakotasun deklarazioa, ROF. aren 83. artikuluan jasotakoaren arabera.

Alkate-Lehendakariak bozketa deitu du eta ondorengo emaitza lortzen da, Korporazioa osatzen duten 9 zinegotzietatik bilkuran 7 daudela: EH Bilduko 5 bozka alde eta EAJ 2 bozka aurka. Horrenbestez, azken orduko gaia sartzeko proposamena, ONETSI DU Udalbatzak.

8. ADIERAZPENA ARAMAIOKO ESKOLAKO LANPOSTUEN ZERRENDA DELA ETA.

Alkateak hitza hartu eta adierazpena irakurtzen du. Adierazpenak horrela dio, hitzez hitz:

“Aramaioko eskolako lanpostuen zerrenda dela eta

KONTUAN HARTUTA:

1.- Aramaioko Udalak berebiziko garrantzia ematen diola Aramaioko herritarren hezkuntzari, eskolak bai ikasle, irakasle zein herriko esparru ezberdinetan duen funtzioari eta egiten duen lanari, era aktiboan herrian sortu diren esparru desberdinetan era aktiboan parte hartzen duelarik.

2.- Aramaioko Udalak San Martin eskolarekin batera hainbat egitasmo eta proiektu aurrera eramaten dituela. Eta horretarako, udal baliabide desberdinak erabiltzen dituela gure herritarren hezkuntza kalitatea bermatze aldera.

3.- Aramaioko Udalak hainbat proiektu herriko eragile desberdinekin eta eskolarekin batera aurrera eramaten dituela, horretarako adosturiko guneetan parte hartuz, besteak beste: Hizkuntza proiektua (herriko euskalkia sustatzeko proiektua), Hezkidetza plana, kontsumo arduratsua eta elikadura jasangarria (udal teknikarien laguntzaz), Aramaioko Herri Curriculum egitasmoa, birziklatzeko herri plana...

4.- Aramaioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko kideak Eskolako zuzendaritzarekin bildu direla eta beraien bitartez jakin dutela Hezkuntza sailak San Martin eskolarako duen Lanpostuen Zerrendaren berri. Bertan, hiru irakasle gutxiago izango ditugula jakin du. Egia da gela bat gutxiago izango dela eskolan, baina era berean hiru ikasle gehiago.

5.- Egun, kudeaketa desberdinak egin arren, eskolatik zein udaletxetik, oraindik eskolak ez duela jakinarazpen ofizialik jaso, lanpostu zerrenda nola geratuko den jakiteko (3, 2 edo irakasle bat gutxiago izango duen jakiteko).

GOIAN AIPATURIKO AURREKARIAK KONTUAN IZANDA, DERITZOGU:



1.- Irizpideak ezartzea ondo dagoela, baina era berean argi dugu ezin dela irizpide bera erabili langile kopurua esleitzerakoan hiri batean kokatua dagoen eskola handi baterako edo landa eremu batean kokaturik dagoen eskola batentzat, ezaugarriak ez baitira berdinak.

2.- San Martin eskolak, Hezkuntza sailak ezarritako proiektuetatik haratago lanketa egiten duela hezkuntza komunitate osoarekin eta herriarekin batera. Gainera, Hezkuntza Sailak ere Praktika On bezala hartu du proiektu batzuetan egindako lanagatik.

Hau guztia kontuan hartuta, Aramaioko Udalak harriduraz eta kezka hartzen du neurri hori. Abian diren egitasmo eta proiektu batzuk aurrera eramatea zailagoa izango baita eta kasu batzuetan ezinezkoa.

HORREGATIK, ARAMAIOKO UDALAK ZERA ESKATZEN DIO HEZKUNTZA SAILARI:

1.- Kasua sakon aztertu dezala eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ezar ditzala herritarren hezkuntza kalitatea eta duen kalitatezko jarduna bermatze aldera. Hezkuntzako departamentu bakoitzaren kalkulu matematikoen gainetik, ikuspegi orokor eta zehar lerroko batekin kontuan izan dezala gurea bezalako herri batean eskolak duen garrantzia eta papera.

2.- Uztailak 18 izanda eta ikasturte berria gainean izanda, lehenbailehen jakinarazi diezaiola eskolako zuzendaritzari bere erabakia, ikasturte berria antolatzen has daitezen.

3.- Etorbizunean Hezkuntza Sailak gai hau lantzerako orduan, kasuan kasuko ikerketa eta azterketa sakon baten ondorioz har ditzala hartu beharreko neurriak. Eta kontuan izan dezala EAEko eskoletako aniztasuna, eskola txiki, eskola handi, herri txikietako eskolak, ... tokian toki kalitatea eta baliabideak bermatzeko.

OHARRA: Eskaera hau Hezkuntza Saileko dagokien arduradunei igorriko zaie eta Udaleko komunikazio sareen bidez zabalduko da."

Pedro Elozegi zinegotziak hitza hartu eta adierazten du bere udal taldekoek aurkako botoa emango dutela. Botoaren nondik norakoak azaltzeko, ondorengo azaltzen du, hitzez-hitz:

"1.- Idazkiko laugarren puntuan aipatzen den bilera uztailak 11an izan zen. Gure taldeak, mahai gainean jarri ziren arrazoiak entzun eta gehienak konpartitu ondoren, konpromisua hartu zuen gestio bat egiteko Hezkuntza saileko Ikastetxe eta Plangintza zuzendariekin.

2.- Lehen aipatutako elkarrizketa uztailak 16an izan zen. Jimenez jaunari azaldu genuen irakasleen kezka, baita Aramaioko udalak eskolarekin batera eramaten duen egitasmo eta proiektuak. Bertan zuzendari jaunak konpromisua hartu zuen datorren ikasturterako San Martin eskolako Lanpostuen zerrenda gutxienez irakasle bat gehiago edukiko zuela, iragarkia zegoen jeitxiera murrizten.

3.- Bilera bukatu ondoren, EAJ-PNV udal taldeak berehala luzatu zion berria Aramaioko Alkate andearari. Beraz, 5."kontuan hartuan" agertzen den "jakinarazpen ofiziala" egiteko ez da izan denbora materiala, bakarrik bi egun pasa direla eta.

4.- Aurreko dana jakin eta gero, gure taldearen iritzia da planteatzen den komunikazio orain eta gaur egitea nahiko presatua da eta ezin du gure baietzko botua jaso."

Besterik gabe, Alkate-Lehendakariak bozketa deitu du eta ondorengo emaitza lortzen da: EH Bildu taldeko 5 bozka alde eta EAJ taldeko 2 bozka aurka. Horrenbestez, Udalbatzak adierazpena ONETSI DU.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.